

www.stee-eilas.org

Irakaskuntza publikoa barrutik...



Hezkuntza Saileko
arduradunak



Irakasleak
lanean



Irakasle
ordezkoak

ESKOLA PUBLIKO DUIN BATEN ALDE,
MURRIZKETARIK EZ!



Eskola Publikoa



Editoriala	3
2011ko OPE/EPE	4
Lehentasunak dira kontua	5
Ordezkoen esleipena	6
Erretiroen egoera	7
Lan Osasuna	8
Nafarroako egoera	9
Indarkeria sexistari aurre egiteko neurriak ?	10
LHko erlijio irakasleen jarduna	11
Gizarte zerbitzu duinak	12
Lan legepekoen hitzarmenaren aurreakordioa	13-14
Naufagoak	15
Hortik irakurritakoak	16



STEE-EILAS

★ MAESTRA CELÁ ★

VIDENTE, FUTURÓLOGA Y CURANDERA

Con rapidez, eficacia y garantía, con poderes sobrenaturales en todos los campos de la Alta Magia, resuelve problemas y dificultades, recorta y reduce, de modo que luego parece que nunca lo haya hecho; para licencias, permisos, enfermedad de cualquier tipo, envía sustitutos en un plazo de hasta 7 días; es capaz de mejorar la educación pública reduciendo sus recursos; tiene los espíritus más rápidos que existen, descargados directamente desde la web magiapropagandayautobombo 2.0, con resultados 100% garantizados en el primer teleberri. Ayuda a dejar la adicción a lenguas minoritarias y otras drogas, especialista en recuperación de la memoria, sólo de una parte, y es la más eficaz in the school modernization de puertas afuera.

**ANUNCIADA EN EITB, EL CORREO, DV, EL PAIS
CONSULTA TODOS LOS DÍAS EN HORARIO
ESCOLAR**

TLF. 876 543 210

BALIABIDE GEHIAGO IRAKASKUNTZA PUBLIKOAN !

MURRIZKETAK ETA BALIABIDEEN ERABILPEN MALTZURRA

Ikasturte berriaren hasierarekin berreskuratu dugu ekaineko irudia: zerbitzu publikoetan murrizketak, gizarteko sektore ahulenen aurkako erasoak eta, gure sektoreari dagokionez, irakaskuntza publikoaren kalitatea kaltetzen duten neurriak.

Hezkuntza Sailak ederki daki nolako murrizketak gauzatzen ari den Euskal Eskola Publikoan. Primeran daki egoera ez dela Nafarroan ematen ari denaren bezalakoa, ezta Espainian PPK gobernatzan dituen zenbait Elkarte Autonomoetan ematen direnen parekoa ere. Jakina! Guk ere badakigu hori, noski! Baina ez da arrazoi nahikoa kontsolamendurako. Sarritan esan badugu ere, berriro baieztatu behar dugu ikastetxeetan bigarren urtez jasaten ari garela Hezkuntza Sailak hartutako neurrien ondorioak eta ordezkak ari direla bereziki pairatzen.

2010ean Hezkuntza Sailak CCOO eta UGTekin sinatu zuen lan-akordio onartezinarekin Haur eta Lehen Hezkuntzako plantillak osatzeko irizpide nagusiak aldatu ziren, administrazioari eskuak libre utziz bi urte hauetan ikastetxe askotan ematen ari diren murrizketak gauzatzeko. Bigarren Hezkuntzan taldekatzetan eta indartze neurritan nabarmendu ziren murrizketak. Adibide gehiago jartzen hasita, IRALEn, prestakuntzan, behar bereziei erantzuterakoan, ikastetxeko egitasmoetan... baliabideak zehazterakoan atzerakada nabarmenak ikusi ditugu bi urte hauetan. Zer esanik ez ordezkapenak betetzeko garaian ikastetxeoi ezarri diguten gain-zama.

Hau guztia gutxi balitz, bigarren urtez segidan ikasle gehiago matrikulatu dira eta irakasle kopuruak ez du gora egin neurri berean. Estimazio bat eginez, aurtengo matrikula berriari aurre egiteko beste 350 irakasle gehiago beharko lirateke.

Baina Hezkuntza Sailak jarraitzen du murrizketarik ez dagoela esanez, baliabideak optimizatzeko eta ongi erabiltzeko neurriak baino ez direla ("ineficiencias y holguras" omen daude...) Beren hitzetan, plantilla nahikoa dago behar guztiei aurre egiteko, ikastetxeetan ordezkapenak betetzeko orduak sobran daude...

Ez da hipokresia edota maltzurkeria bakarra. Baliabideak era diskriminatzailean erabiltzen ari dira, ikastetxe batzuk saritu eta beste batzuk zigortzeko, behar berdinei erantzuteko baliabide ezberdinak emanez. Ez al dituzte behar berdinak ikastetxeek zuzendaritza taldeak egonkorrak izanik ala ez? Badirudi Hezkuntza Sailaren egitasmoekin bat egiten dutenak sarituak direla, bestela, nondik atera dira Hiru Eleko Markoan ari diren ikastetxeei eskaintzen zaizkien baliabideak aurrekontuak ez badira ugari-tu? Beste ikastetxe batzuei, berriz, urtero irakasle bat, erdia edo herena kendu zaie inolako arrazoi edo azalpenik gabe.

Zein da horren guztiaren ondorio nagusia? Gero eta arazo gehiago dagoela ikastetxeetan egunerokoa aurre egiteko, ikastetxeetan dauden irakasleak gero eta gauza gehiago egin behar dutela eta ordezkoei gero eta lan gutxiago eskaintzen zaiela. Honek guztiak zuzen zuzenean eragiten dio irakaskuntza-aren kalitateari, lortutakoa arriskuan jarri.

Irakaskuntza Publikoa lehenetsi behar dela esaten jarraituko dugu. Horretarako ongi etorriak izango dira publizitate kanpainak eta beste zenbait keinu, baina matrikula garaian gurasoek Eskola Publikoari ematen dioten babesari baliabideekin erantzun behar zaio, modu horretan lortu baitu duen kalitate maila, ez murrizketekin, hauek irakaskuntza publikoa kaltetu baino ez baitute egiten. Hezkuntza Sailak bigarren urtez ezarri nahi duen dinamika atzerakoi horri aurre egiteko prest gaude eta erantzungo dugu.

RECORTES Y UTILIZACIÓN PERVERSA DE LOS RECURSOS

Volvemos a ver en septiembre la misma foto que dejamos en junio: recortes que afectan directamente a nuestro trabajo y a la calidad que queremos darle. Educación sabe perfectamente que este año hay más recortes derivados del inaceptable convenio firmado con CCOO y UGT y , sin embargo, lo niegan diciendo que hay plantilla suficiente y que sólo son medidas para "corregir las ineficiencias y holguras del sistema". Intentar consolarse diciendo que estamos mejor que en otras comunidades es un engaño. Tenemos cada vez más problemas para sacar adelante el trabajo diario, más cosas que hacer, y mientras tanto el colectivo sustituto con menos trabajo y en peores condiciones.

2011KO EPE/OPE BURUTU DA; 2012AN ZER?

Udan burutu da 2011ko EPE/OPEa. Hasieratik adierazi genituen **gure desadostasunak**:

Deialdi honetarako, 2009ko EAeko Administrazioiko Mahai Orokorrean, 1700 plaza sinatu ziren, baina bakarrik 1515 atera ziren deialdian.

Horietatik 85 HE2 gabekoak (42 maisu-maistrak), erabat onartezina. Gainera, nahiz eta deialdian HE1eko 85 plaza eskaini, soilik HE2 gabeko 20 irakaslek lortu dute plaza.

2011ko EPE	Plaza kop.	Oposaketari	Ratioa
Maisu-maistrak	1.186	2.583	2,18
Bigarren Hezku	225	849	3,77
Hizkuntza Esk.	74	188	2,54
Kontserbat.	30	98	3,27
GUZTIRA	1.515	3.718	

Hona hemen parte hartzaileen kopuruak eta eskainitako plazak, eta horien ratioak kidegoen arabera:

(3.718 pertsona horiek, koadroan oposaketari moduan agertzen direnak, EPEren ibilbide osoa egin dutenak dira)


Uztailean 15era arte iraun zuten ahozko azterketek, behin behineko emaitzak hilaren 25ean irten, eta behin betikoan abuztuaren 8an; hortik aurrera dokumentazioa aurkeztu edo gorako errekurtsioak... esleipenak abuztuaren 12-13an praktikak egin behar zutenentzat eta ordezkoez 17tik 23ra arte. **Oposaketari ordezkoez uda osoan ibili dira dantzan.**

Azkenean 1.460 plaza eman ziren oposizioetan; izan ere, **55 eman gabe geratu dira**: 44 Lehen Hezkuntzan (476 plaza zeuden), 3 Ingelesean (107 plaza), 8 Kontserbatorioan (30 plaza). Honek harritu egin gaitu. Kontserbatorioan datuak bereziki larriak dira: %26 geratu da bete gabe!

Horrelakoetan gertatzen den moduan, ohiko pozak eta atsekabeak egon dira, eta parte hartzaile askok aurkeztu dute helegitea, gutxienez beren probak nola ebaluatu diren ikusteko.

Ongi dago EPEren bidez lan finkoa lortu ahal izatea, baina beti defenditu dugun moduan, **EPEak ez lirateke izan behar bide bakarra ordezkoez kolektibo zabalaren lan baldintzak hobetzeko**. EPEa amaituta, gaur egun mila-ka diren interino horiek lan estabilitatea bermatzeko neurriak behar dituzte.

2009an sinatutakoaren arabera, gutxienez 1.700 plaza gehiago atera beharko dira 2011-12 ikasturte honetan. 2010eko Lan Hitzarmenean, aldiz, 1.200 zehazten dira. Administrazioak ez du argitu zer egingo duen; berririk balego berehala jakinaraziko dizuegu.



OPE 2011

Ha terminado el proceso de la OPE. Criticamos en su día que salieran 1.515 plazas y no las 1.700 que se acordaron en la Mesa General de 2009, así como la oferta de plazas sin PL2 (85, la mayoría de ellas en el Cuerpo de Maestros/as).

Se han presentado y hecho el recorrido completo de la OPE 3.718 personas, de las que 1460 han obtenido plaza. Sorprendentemente han quedado 55 plazas sin adjudicar (47 en Primaria y 8 en Conservatorios).

Las OPEs sirven para consolidar empleo pero seguimos defendiendo que no deben de ser el único sistema para dar estabilidad a las miles de personas del colectivo sustituto


Estamos a la espera de ver qué sucede con la OPE prevista para este curso 2011-2012. Informaremos puntualmente.

LEHENTASUNAK DIRA KONTUA!

Krisi garai hauetan Eusko Jaurlaritzak honelako proiektuak ari da bultzatzen:

Buesa Arena berria

(5.300 ikusle-leku gehiago)



Aurrekontua: 28.000.000 €

Eusko Jaurlaritzaren ekarpena:
14.000.000 €

**534 Hezkuntza Laguntzako
Especialisten urtebeteko soldata**
(2011ko soldaten taularen arabera)

San Mames berria

(13.570 ikusle-leku gehiago)



Aurrekontua: 175.000.000 €

Eusko Jaurlaritzaren ekarpena:
55.000.000 €

**1.709 maisu-maistra gehiagoren
urtebeteko soldata**
(2011ko soldaten taularen arabera)

TAV-AHT: asesoria/proiektu tekniko batzuk-2011

(Eusko Jaurlaritzak ordainduko dituenak)



Aurrekontua: 30.000.000 €

Eusko Jaurlaritzaren ekarpena:
30.000.000 €

**810 Bigarren Hezkuntzako
irakasleen urtebeteko soldata**
(2011ko soldaten taularen arabera)

Gauza jakina da STEE-EILAS AHT-TAVen aurka dagoela; aitzitik, ez du ezer kirolaren edo kirol elkar-teen aurka. Konparazio honekin bakarrik salatu nahi dugu krisi garai hauetan, zerbitzu publikoetan eta hezkuntzan murrizketak eta baliabide gabeziak sufritzen ari garenean, Eusko Jaurlaritzak baliabideak -eta ez nolanhikoak- bai aurkitzen dituela honelako "beharrei" eskuzabal erantzuteko. Hori da, bada, **lehentasunak dira kontua!**

CUESTIÓN DE PRIORIDADES

En estos tiempos de crisis llevamos ya un par de años de recortes. Pero, sorprendentemente, vemos que las instituciones, y entre ellas el Gobierno Vasco, sí encuentran recursos -y no escasos- para algunas necesidades a las que se responde con una generosidad que ya quisiéramos en los recursos que se destinan a la enseñanza pública. No tenemos nada contra los clubs deportivos, por supuesto, pero sí queremos denunciar los recortes sociales, que se presentan como inevitables.

ORDEZKOEN ESLEIPENAK, IKUSKIZUN HARRIGARRIA

Etorri, etorri eta ikusi... finkatua mugikor!!! Txan txan... gorputz heziketakoa 2 urtekoen tutore!!! Txis pon... PTkoa musikari!!! Ale hop... nahi zenuen plaza ez zen garaiz atera!!! Zanga zanga... hartu zenuena ez zen existitzen!!! Akerraren hanka... ikastetxeak emandako informazioa jan zuten!!! Firuli firula... administrazioaren huts egiteak langileek ordaindu!!! Ooooo... egun batetik bestera esleipena Bilbon!!! Iuuufaaaa... Bilboko saioren bat erdera hutsean!!! Tooomaaa... zuzendaria ordezkapenak betetzen!!! Trialara...

Aurten, esleipenetan, berrikuntza batzuk egin dira, beraz, berria izateak ez dakar derrigorrez okerrago ibiltzea, eskarmentua dutenak ere galdu daitezke eta.

Lehenbizikoz, esleipen telematikoa kidego guztietan egin da; honek kidego bat baino gehiagotan dagoenari aukeraketa errazten dio, kidego eta espezialitate guztietako plazak tartekatu ahal baititu eskaera orrian. Horrez gain, EAetik kanpo izanda ere parte hartzeko aukera badago, baina sistema honek akatsak ere baditu, eta esleipen presentzialetako arazo berberak mantendu dira.

Esleipen telematikoa erraldoia da, **milaka pertsona izan dira deituak parte hartzeko (9.281) eta erdia baino gehiagok (4.929) alferrik**, plaza lortu ez dutenez esleipen presentzialera joan behar izan baitu. Ez da tontakeria abuztuan lan honi hainbat ordu dedikatu behar izatea; parte hartzea ez da zaila baina bai neketua eta zer plaza dauden libre jakiterik ez dagoenez, deitutako guztiek plaza pilo bat eskatu behar dute badaezpada, bestela ofizioz eman diezaiokete; hanka sartuz gero norberak bere larrutik ordainduko du (berrehun inguru erreklamazio egon ziren eta bat bera ere ez da onartua izan).

Behin baino gehiagotan proposamena egin dugu esleipen telematikoa bakarra egin beharrean kolektibo txikiagoak txanda ezberdinetan deitzeke, puntuazioaren arabera: horrela errazago litzateke plazak ezagutzea eta aukeratzea eta txanda batean gertaturiko akatsak hurrengoan zuzenduko lirateke. Alferrik izan da.

Fijazioa eta esleipena aldi berean egin dira, eta honek nahasmena sortu du hainbatetan.

Urtero bezala hainbat plaza berandu atera dira (irailaren 3an edo beranduago), bereziki Gipuzkoan (eta Arabako kontserbatorioan???), horrek dakarren guztiarekin: puntu gehiago dutenek ezin izan dituzte horiek aukeratu...

Plazen ezaugarrietan errakuntza ugari egon da eskaera egiterakoan nori galdetu ez dagoelarik; ikastetxeak kexatzen dira haiek emandako informazioa ez dutelako zehazki adierazten.

Esleipen presentzialaren deialdia egiteko era ere lotsagarria izan zen; egun batean El Correo Español egunkarian agertu zen, artikulua baten barruan, eta handik 4 egunera, esleipenen bezperan, hezkuntza sailaren webgunean dei ofiziala agertu zen: larunbatean esleipena, eta hori gutxi balitz, bezperan bertan, arratsaldeko 18:00etan, jakinarazi zen lanpostu hutsen zerrenda.

Urtetik urtera plaza gutxiago eta txarragoak, ordezkokoak kaltetuenak. Hezkuntza Sailak enplegua suntsitzen du.

Azkenik, **gero eta plaza gutxiago eta kaxkarragoak daude ordezkoentzat**; iaz murrizketen ondorioz gertatu zen, aurten iazko murrizketei EPE deialdia gehitu zaielarik. Ondorioz, inoiz gogoko izan ez dugun fijazioa desagertzen ari da berez.

ADJUDICACIONES DE SUSTITUTOS/AS, PASEN Y VEAN

La administración está muy contenta con las adjudicaciones vía informática, y no es para menos. Hace muchas menos adjudicaciones presenciales que son muy trabajosas (para la administración, al profesorado sólo se le convoca una vez) y si alguien se equivoca sale directamente perjudicado/a y listo (hubo alrededor de 200 reclamaciones y no se ha aceptado ninguna). La fijación y adjudicación se han mezclado lo que añadió más confusión. Más de la mitad de las personas participantes han tenido que acudir también a la posterior adjudicación presencial, porque en la telemática no tuvieron plaza, pero eso da lo mismo. Los errores en las características (y la propia existencia) de las plazas no han disminuido: cuando las adjudicaciones eran presenciales se subsanaban en la siguiente adjudicación y ahora no se detectan hasta pasadas 4352 personas, pero eso no tiene importancia. Cada año hay menos y peores plazas, entre recortes de plantillas y OPEs el colectivo de interinos/as pinta cada vez menos (excepto a la hora de currar, eso sí). El Departamento de Educación sigue destruyendo empleo

ERRETIROAN EGOERA ONARTEZINA:

Lan berdina, jubilazio ezberdina



Igaro da 2011ko abuztua eta hor amaitu zen LOEren 2. xedapenak ezartzen zuen epea. Honek jubilazioan atzera pausuak ekarri ditu guztiontzat: MUFACEn daudenentzat, kotizazio urteen alorrean kaltea eta Gizarte Segurantzaren menpeko irakasle funtzionarioentzat aurretiko jubilazioa hartzeko aukera. Une honetan, beraz, **bakarrik MUFACEn dauden funtzionarioek dute 60 urterekin erretiratzeko eskubidea**, behintzat Clases Pasivas deituriko legedia Madrilen aldatzen ez badute (eta dirudienez aldatzeko asmoa badago, okerrerako, noski). Gizarte Segurantzaren menpe dauden gainontzeko irakasleek, funtzionario zein ordezeko, 65 edo 67 bete arte itxaron beharko dute.

Egoera zeharo onartezina iruditzen zaigu. **Kidego bereko langile orok aurretiko jubilaziorako aukera berdinak izan behar dituela aldarrikatzen dugu STEE-EILAS sindikatutik.** Azken urteotan sortu den arazo honetaz askotan ohartarazi ditugu gure politikariak, baina ez dute hartu erabakirik; axolagabekeria horren emaitza oraingo egoera tamalgarria da: lan berean aritzen garenok erretiro baldintza ezberdinak ditugu (bost urteko aldea!).

Hori gutxi balitz, gogoratu behar dugu 2011ko urtarrilean pentsioen erreforma adostu zutela Madrilen CCOOK, UGTk, CEOEk eta Gobernuak, erretiroa hartzeko baldintzak gogortuz eta epeak luzatuz: progresiboki jubilazioa 67 urtera eramaten, kotizazio urte kopurua handitzen, pentsioen kantitatea gutxitzeko neurriak hartzen...

STEE-EILASEk guztiontzako 60 urteko erretiro eskubidea defendatzen jarraituko du. Gure sindikatuarentzat lehen mailako kezka dira erretiroaren baldintzak, eta **guztiontzako erretiro duinaren alde borrokatzen jarraituko dugu.**

Bitartean, askotan eskatu dugun bezala, LOEren xedapena luzatzea eskubideak mantentzeko bidea litzateke.

PASOS ATRÁS EN LA JUBILACIÓN

Finalizó en agosto la disposición adicional de la LOE que posibilitaba la jubilación anticipada del personal funcionario adscrito a la Seguridad Social. Esto significa que a partir de ahora solo el personal de MUFACE podrá jubilarse anticipadamente a los 60 años y que el resto, tanto funcionarios/as como interinos/as, va a tener que esperar a los 65 (o 67, según la reforma de las pensiones pactada en Madrid en enero de 2011).

Hemos estado años advirtiendo de lo que no debía de haberse producido nunca. Al departamento de educación no parece haberle importado.

No es un asunto que vamos a dejar de lado. La posibilidad de jubilación para todos y todas a los 60 años es una reivindicación prioritaria en nuestra agenda.

Mientras tanto, la prórroga de la adicional de la LOE sería una buena forma de mantener ese derecho.

LAN OSASUNA: lanean jazarpen sexista edota morala gertatzen den kasuetan prebentzio neurriak eta jarduteko prozedura

Pasa den uztaillean, lanean jazarpen sexista edota morala gertatzen den kasuetan prebentzio neurriak eta jarduteko prozedura arautzen dituen agindua argitaratu zen, (EHAA 2011-07-26).

Aginduaren osaketan OSALANek eta Laneko Jazarpen Moralaren Euskal Behatokiak hartu dute parte, garapenean sindikatuok alegazioak aurkeztu genituelarik. Bertan bildutako xedapenak unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan lan egiten duten **langile publikoei** eta Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden ikastetxeetan, hezkuntza-instalazio edo kudeaketan lan egiten duten irakasleei aplikatuko zaizkie.

Prozedurak **bitartekaritza fase** bat du, langileen arteko gatazkak edo antolakuntzakoak modu azkar eta eraginkor batez konpontzeko helburuarekin. Bitartekaritza faseak huts eginez gero, **ikerketa fasea** garatzen da, non ikerketa sakon baten ondoren beharrezko neurriak hartuko diren. Fase bakoitzaren epeak ere zehazten dira.

STEE-EILASen uste dugu langileen osasuna babesteko oso tresna baliagarria izan daitekeela, baina administrazioak ohituta gaituen bezala, oraingoan ere, etxea teilatutik hasi da.

Alde batetik, bitartekaritza faserako, Sailaren Ikuskaritza zerbitzuak bitartekaritza prozeduretan espezializatutako ikuskari talde bat osatuko duela esaten du. Guk izandako bilera guztietan pertsona horien prestakuntza eta sentsibilizazioa ezinbesteko dela esan arren eta prestakuntza horren berri izateko eskatu arren, gaur egun ez dakigu ezer. Ez nork emango duen, nori, aukeratzeko zer irizpide erabili diren...

Beste aldetik, Ikerketa Batzordearen barne funtzionamendurako araudia ezartzeko hiru hila-beteko epea jarri da. Hau da, urriaren 26 baino lehen amaituta egon beharko litzateke. Ikusiko dugu... eta jakina!, uztailaren bukaeran argitaratzea gehienok oporretan gaudenean...

Gure ustez aipatutako puntu hauek ezinbestekoak dira benetan prozedura emankorra izatea nahi badugu. Baina berriro ere, beste hainbat gaiekin ohitura den bezala, barneko etxeko lanak egin gabe argitaratu da agindua (kontuan hartu, argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jarri zela).

Hala ere, testua irakurtzera animatzen zaituztegu eta horrelako jazarpen egoera baten aurkitzen bazarete, jakina, salatzeraz.

Informazio gehiago

www.stee-eilas.org



PREVENCIÓN Y ACTUACIÓN CONTRA EL ACOSO MORAL O SEXISTA

El pasado 26 de julio se publicó en el BOPV la Orden que regula las medidas de Prevención y el procedimiento de Actuación en casos de Acoso Moral y/o sexista en el trabajo. En él se establece una fase de mediación y si ésta no resultase efectiva una de investigación. A pesar de que en STEE-EILAS pensamos que puede ser una herramienta muy útil, una vez más la administración empieza la casa por el tejado, ya que además de publicarlo en julio cuando la mayoría estamos de vacaciones, no se nos ha dado ninguna información sobre a quién se va a formar en mediación, quién va a formar y cuándo. Tampoco existe todavía un reglamento interno de funcionamiento de la Comisión de Investigación. Sin embargo, os animamos a qué leáis el texto y si os encontráis en una situación de acoso, por supuesto, la denunciéis.

Gatazka laborala zena Eskola Publikoaren defentsa bihurtu da

Pasa den ekainean Departamentuak plantillen ikerketa baten berri eman zigun, eta horren ondorioz Irakaskuntza **Ertainetan ordu lektibo bat gehiago eman behar da** aurten. Aurkezpenean ikerketa hutsa zela esan ziguten, kontseilari berriaren erabakia ez baldintzatzearen. Gure beldurra egia bihurtu zen eta ikerketa izatetik errealtate izatera pasatu zen: **200 pertsona baino gehiago lanik gabe gertatu dira**, eta ordu bete lektibo zuzena eman behar izateaz gain, 55 urte goitikoei aplikatzen zitzaizen murrizketa baztertu dute.

Irakasleok, adar jotze hau ikusita, gure haserrea erakutsi genuen ekinaren 23an egindako elkarretaratze jendetsuan.

Eskola Publikoari egiten zaion eraso berri hau lotsagarri eta onartezina da. 2010-11 ikasturtean hainbat murrizketa izan ziren: ikasgengatiko lizentziak baztertu, irakasleen birtziklaia desagertu, prestakuntzan %9ko murrizketa (datorren urterako %70eko murrizketa iragarri dute)

Abuztuaren 30ean talde parlamentariekin egindako bileran, UPNko ordezkariak esan zuen "hezkuntzan egin beharreko murrizketak ahalik eta txikienak izatea" espero zutela. Eta halakoa izan da titularretako informazioa, baina UPNari 4 milioi gutxiago egokitu zaio. Trebeak dira egia ezkatzen!

Ez da ordezkapenik izanen 15 egun edo 15 egun baino gutxiagoko baimen edo bajetan. Irakurketa maltzurra egin dute eta 16. egunetik aurrera ari dira bideratzen ordezkapenak. Lehen Hezkuntzako hainbat ikastetxetan kaosa izan da nagusi, lehenengo egunetan, bi, hiru, baita lau tutore edo espezialista ere falta baitziren. Sindikatuok, gurasoek, irakasleek... egindako

presioari esker kontratazioak azkartu ziren eta egoera leundu.

Iritzi publikoa engainatzen saiatu da kontseilaria: eskua luzaturik duela esan du behin eta berriro, eta elkarrizketarako gogoia, bai eta inguruko erkidegoetan baino txikiagoa dela murrizketa errepikatu ere. Guk negoziazioa exijitu diogu, mahai gainean jarri ditugu benetako datuak, eta iritzi publikoak horren berri izan du.

2012ko aurrekontuetan irakaskuntza publiko-rako lerroak berriro gutxitzen badute, irakaskuntza publikoaren kalitatea kalteturik gera daiteke, eta aniztasunari ematen zaion arreta ezin izango da mantendu behar bezala.

IRAKASKUNTZA PUBLIKOAREN DEFENTSAN giza mobilizazioa beharrezkoa da. Denok dakigu hemen jokoan dagoena hezkuntza publikoaren geroa dela.



DE CONFLICTO LABORAL A DEFENSA DE LA ESCUELA PÚBLICA

Los recortes anunciados han de sumarse a los ya efectuados previamente desde el 2008:

Presupuesto 2010: 670 millones de euros

Inversión total en 2011: 635 millones. 5,22 % menos que el año anterior. Los recortes nos llevan a cifras menores que las de 2008, en que la matrícula era un 12 % inferior a la actual. Esto significa que para mantener una inversión por alumno similar a la del año 2008, Educación habría tenido que invertir 81,8 millones de euros adicionales. La inversión para el año 2011 debería haber sido de 716,8 millones de euros. Es decir **el recorte real asciende al 12,8 % del presupuesto.** ¿Cuántos puestos de trabajo se han caído por el camino? ¿Cómo está afectando esto a la escuela pública?

Mientras tanto, a la concertada, de 40 millones de euros han aplazado 300.000 euros al 2012, sin recortar nada.

INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEKO NEURRIAK...?

Ikasturte honen hasieran eta Sailak ohitura duen bezala, Celaá andreak komunikabideen bitartez plazaratu zuen indarkeria sexistei aurre egiteko, indarkeria mota hau pairatu duten **biktimak ikastetxeetara hurbiltzeko plana**. Celaáren hitzetan "Askoz egokiagoa da biktima baten presentzia 150 klase teoriko baino, ikasleen artean enpatia eta humanitatea sortzen dituelako"

Ez dago txarto biktimarekiko horrelako sentimenduak sortaraztea, baina hezkuntzaren helburu nagusia indarkeria eta jarrera sexistak saihestea da eta **hori lortzeko bide bakarra hezkidetzeta da**.


Gaur egun geletan hezkidetzeta eta sexuen arteko berdintasuna ez da sistematikoki lan-tzen, konprometitutako irakasleen kasu puntualetan izan ezik. Administrazioak ere ez du behartzen legeetan ezarritakoa praktikan jartzera, formazioan inbertsio gehiago eta, jakina, horren aldeko borondate politikoa eskatzen dituelako. GARATUn, gutxi gora behera, 350 ikastaro eskaini dira eta 13 baino ez dira hezkidetzaren ingurukoak, hau da, eskaintza osoaren %5a, eta gainera 13 horietatik bakar bat indarkeria sexistari aurre egitekoa.

Biktimak eskolaratzeak ez dakar hezkidetzarekin konpromisorik, ez dakigu zer-nolako edukia landuko diren, zenbat ikastetxek eta ikaslek parte hartuko duten, zer baloreak transmitituko diren, etab. Gure ustez, indarkeria sexista arautu gabeko programa ez orokorretan uztea oso arazo larria da.

Indarkeria sexistari aurre egiteko indarkeriarik gabeko bizimodurako hezi behar dugu, haur-eskoletatik hasita eta hezkuntzako eremu eta arlo guztietan, hau da, ageriko curriculumean zein ezkutuan.

Argi dago, sexismorik gabeko hezkuntza praktikan jartzeko, Hezkuntza Sailak hezkidetzaren aldeko apustu garbia egin behar duela, hezkidetzaren helburua eskola ez sexista eta pertsonen arteko berdintasuna jorratzea eta lortzea baita. Berdintasunak aniztasuna eta berdinen arteko diferentziak errespetatu egin behar ditu. Hau da, gure hezkuntzak eta gure eskola ereduak harremanetan eta eskubideetan berdintasuna garatu behar du.

Biktimekiko errespetu osoa dugu eta instituzioek aukera guztiak eskaini behar dizkiete bizitza normalizatura bueltatu ahal izateko, baina ez dugu uste indarkeria sexista saihesteko biktimak erabiltzea egokia izango denik, enpatiaren ordean morboa eta imitazioa sor-tzeko arriskua ere baitaude.



¿VÍCTIMAS DE VIOLENCIA SEXISTA A LOS CENTROS?

La consejera Celaá ha presentado su plan de acercamiento de las víctimas de violencia sexista a los centros. Con todo el respeto que se merecen, creemos sin embargo que no es el mejor método para sensibilizar contra ese tipo de violencia. Es la coeducación y la educación para la igualdad el camino para conseguirlo y, para ello, hay que trabajar sistemáticamente estos contenidos en las aulas incluyéndolas en el curriculum. La Administración no hace esa apuesta por la coeducación y llevando a las víctimas a los centros pueden producirse reacciones de morbo e, incluso, imitación, contraproducentes.

LHko ERLIJIO IRAKASLEEN JARDUNA BESTE GAIEKIN OSATU?

Urriaren 3an eztabaidatu zen EAEko Legebiltzarraren Hezkuntza Batzordean Haur eta Lehen Hezkuntzako erlijio irakasleez. Jakina denez, irakasle hauek, 205 guztira, udan transferitu izan zaizkio Eusko Jaurlaritzari eta orain irakasle kolektibo honen sindikatuek (LSB-USO, ELA eta UGT) eskatu dute haiei ere aplikatzeko Bigarren Hezkuntzako erlijio irakasle laboralen lan hitzarmena. Honek erraztu zezakeen **erlijio katolikoko irakasle hauek beste ikasgaiak ere eman ahal izatea** beren jarduna osatzeko. Proposamen hau PNV-EAJk, PPK eta EAK babestu dute Hezkuntza Batzordean.

Bere garaian STEE-EILASEk honen aurkako jarrera mahairatu zuen. Ez gaude ados erlijioaren inposaketarekin, ikastetxeen antolaketa, ordutegiak eta jarduna baldintzatzen duena. Askotan adierazi dugu **erlijioak ez duela tokirik izan behar eskola publikoan**.

Baina guretzat egoera hau onartezina ere bada langileen ikuspegi hutsetik begiratuta, **berdintasunaren printzipioa apurtzen baita**: ezin da

eskatu berdintasuna gainontzeko irakasleekin, aldarrikatzen duten moduan, jatorriz eta hasieratik sartzeko baldintzak erabat desberdinak direnean.

Irakaskuntza publikoko **irakasle ordezekoak langabezia latza jasaten ari dira** Hezkuntza Sailaren murrizketak direla eta (ordezkapenak betetzeko baldintzak, plantillak...). Gauzak horrela, oso larria iruditzen zaigu ordezkoen lana are gehiago mugatuko lukeen proposamena mahaira ekartzea.

Portzierto, aipatutako alderdien babesari esker, aurrera atera zen proposamena Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean. Espero dezagun Hezkuntza Sailak gai honetan gestio egokia egitea.

GAUZAK ARGIAGO EZIN:



¿PROFESORADO DE RELIGIÓN EN OTRAS ASIGNATURAS?

El 3 de octubre se discutió en la Comisión de Educación del Parlamento Vasco la posibilidad de que el profesorado de Religión de Primaria e Infantil recientemente transferido al Gobierno Vasco se integre en el convenio laboral del profesorado de religión de Secundaria. Esto posibilitaría que puedan completar su horario impartiendo además de religión católica otras asignaturas. PNV, PP y EA respaldaron esta propuesta. STEE-EILAS ha manifestado reiteradamente su rechazo a que la religión esté presente en las aulas de forma confesional. En este caso, la propuesta es, además, especialmente grave porque supone incidir en las horas de trabajo que corresponderían al profesorado interino, que está sufriendo directamente las medidas de recorte del Departamento (plantillas, sustituciones...).

GIZARTE ZERBITZU DUINAK: MURRIZKETA GEHIAGORIK EZ!!

Irailean, Gasteizko Legebiltzarrean, alderdi politikoak bildu ziren hurrengo plenoan bozkatu-ko den Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen proiektuaren diktamena adosteko.



PSE-k eta PP-k adostutako ebazpenak Diru-sarrera Bermatzeko Errentaren eskubidea izateko irizpideak zorroztuko ditu, Erkidegoan **erroldata egoteko derrigorreko denbora urte bate-tik hiru urteetara luzatuz** (edo 5 lan urte diruz ordainduta, bizitza laboralaren bitartez kreditatuta). Baldintza hau era irregularrean daudenentzat ezinezkoa da eta gazteentzat oso zaila.

Era berean, **lanpostu prekarioak onartzeko betebeharra ezartzen da:** lan

eskaintza bat hartzeari uko egiten duten pertsonen prestazioa kendu egingo zaie (orain arte lan eskaintza ez-egokia izatekotan uko egiteko hiru aukera zeuden) eta gizarterako lanak egiteko derrigortasuna ezartzen da (zerbitzu publikoetan lanpostuak desagertzeko arriskua).

Gizarte gaietarako eta Enplegu Sailaren sailburua den Gemma Zabaletak bultzaturiko azken murrizketa soziala besterik ez da. Legealdia honetan zehar, Eusko Jaurlaritza gizarte eskubide eta diru-laguntzen murrizketetan etengabeko urratsak eman ditu, Gizarte Larrialdietarako Laguntza eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta lortzeko eskakizunak gogortuz

2009. urtean legea indarrean jarri zenetik, eta bereziki oraingo gobernuak garatzen duen araudia onartu zuenetik, gizarte eskubideak murrizten dituzten neurriak hartu dira etengabe eta, ondorioz, babes soziala gutxitu eta laguntzak eskatzen edo jasotzen dituzten pertsonen defentsa-gabezia areagotu egin dira.

Lehenbiziz, prestaziorik gabe utzi zuten ondasun higiezin bat zeukaten pertsonak, honela Euskadira lan egitera etorri diren langileak haien herrietan etxebizitza edo lur zati bat izanda laguntzarik gabe gelditu dira: jubilatuak, helduak seme-alabak etxean utzita bertara lanera etorriak diru apur bat eramateko asmoz, banatu diren pertsonak eta ondasun komuna dutenak, etxebizitza baten zatia herentzi giza jaso dutenak...

Oraingo arautegiarekin, etxebizitza bakoitzeko bi laguntzen muga sartu zuen. Bizkaiko Aldundiak ere egoera larriagotu egin du muga berbera ezarri. Neurri honek ekarri duen ondorioa erroldatzeko eskubidea duen gela baten alokairua garestitzea izan da, eta etxebizitza konpartitzeko beharra dituzten pertsonak eskubiderik gabe uztea...

Egoera larriagotzen da eskaerei erantzuteko atzerapenekin, errekurtsuak bideratzeko epe luzeegiekin, kautelazko etenaldietan gehiegizko erabilerarekin, akatsekin,....

Begi bistakoa da **Oinarrizko Errenta lortzeko baldintzak gogortzeak milaka pertsona txirotasun egoeran uztea baino ez duela ekarriko** eta, horren ondorioz, gizarte bazterkeria, lan merkatuaren prekarizazioa eta gizarte politiken deuseztapena areagotu egingo dira, egungo gizartea babesteko sistema desagitera bultzatzen delarik.

Hau guztia salatzeko STEE-EILAS sindikatuak, beste jendarte eragileekin batera, neurri hauek baztertzea exijitzen du eta krisialditik ateratzeko irteera gizarte zerbitzu eta politikak indartuz eman behar dela aldarrikatzen jarraituko du.

POR UNOS SERVICIOS SOCIALES DIGNOS: NO MÁS RECORTES

STEE-EILAS quiere denunciar los últimos recortes que quiere introducir el Gobierno Vasco en las prestaciones sociales dirigidas a personas desempleadas, con empleos precarios o pensionistas con escasos recursos económicos. Endurecer los requisitos de acceso a la Renta de Garantía de Ingresos sólo provocará dejar en la más absoluta indigencia a miles de personas. Esto conllevará un aumento de la exclusión social, precarizará aún más el mercado laboral y eliminará las políticas sociales, desmantelando el actual sistema de protección social.

LAN LEGEPEKOEN IRAKASLE ETA HEZITZAILEENTZAKO II HITZARMENA

AURREAKORDIOA = ABIAPUNTUA

Suposatzen dugu dagoeneko mundu guztiak dakiela irailean Hezkuntzako Lan-legepeko langileen Mahai Negoziatzailea osatzen dugun sindikatu guztiok gure lan baldintzei buruzko hainbat puntutan aurre akordio bat sinatu genuela Administrazioarekin. Ez bada horrela, informatu zaitez, interesgarria da eta.

Azken urteetan Administrazioak gutxietsi gaitu, paso egin du gutaz, koplarik erabili gabe. Baina langileok ez dugu amore eman eta etengabe borrokatu dugu guri dagozkigun eskubideen alde.

STEE-EILAS-en zuen elkartasuna eta kemena jaso dugu ibilbide luze honetan. Behintzat, horrela sumatu dugu mobilizazioak eta grebak egiteko deialdiak luzatu dizkizuegunean.

Baina adostutako aurre akordioa ez da helmuga STEE-EILASentzat, gure lan baldintzak aldarrikatzeko abiapuntua baizik. Horregatik ahaleginak egiten jarraitzeko eskatu nahi dizuegu, guztion artean gure hitzarmenaren beste gainontzeko puntuak aztertuz, moldatuz, sakonduz... Hitz batean, gure eguneroko lana hobetu eta gure eskubideak bermatuko dituen lan hitzarmena lortzen lagunduz.

ZEIN PUNTUTAN HELDU GARA ADOSTASUNERA?

- * Udaren kobraketa (165 egun)
- * Hezkuntza Laguntzako Espezialisten urteko ordu kopuruaren jaitsiera (1462 ordu)
- * Hezkuntza Laguntzako Espezialisten asteko jardunaldiaren zehaztapena (37,5 ordu)
- * Hezkuntza Laguntzako Espezialisten bazkaltzeko denbora: ordu bat
- * LPZren gehikuntza
- * Erdi mailako teknikarien homologazioa
- * Hezkuntza Laguntzako Espezialisten aintzinasuna beste administrazioaren lan-legepeko kategorietakoarekin parekatzea
- * Lanpostuaren aldaketa osasun arazoengatik
- * Eginkizunen behin-behineko izendapena
- * Gizarte fondoaren gehikuntza
- * Langileen finkapena
- * LEPa egiteko konpromisoa
- * Hezkuntza Laguntzako Espezialistentzako diru gehiago lan jantzetan

Ezagutu nahi baduzu zehatz-mehatz zertan datzan punturen bat, kontsultatu gure sindikatuan. **Eta, adi egon!! Aurre akordio honetan adostutako puntuak ezin izango dira aplikatu hitzarmena sinatu arte.** Eta, noiz izango da hori? Administrazioaren asmoa da lehenbailehen egitea. Errealitatea zein izango den, AUSKALO!

EIBARREN ESLEITUTAKO PLAZEN BALORAZIOA

Aurten Eibarren esleitu diren hezkuntza laguntzako espezialisten plazen balorazio orokor bat egiterakoan, ikus dezakegu aldaketa gutxi egon direla iazkoarekin alderatuz.

Guztira 4 jardun oso desagertu eta 10 partzial sortu dira hiru lurraldeetan. (Kontuan izan behar da datu hauek behin-behinekoak direla, esleipenen ondoren urtero zenbait plaza sortu eta desagertzen direlako).

Bestalde, H.L.En arreta behar duten ikasleen kopuruaren inguruko daturik lortzerik ez dugunez, ezin da jakin Administrazioak beharrezkoak diren baliabideak jarri dituen.

Fisio eta Terapeuten plazen inguruan, berriz, aldaketa gutxi aurten ere. Ikasturtero bezala plaza gehiago eslei dezaten eskatzen jarraituko dugu.

IKASTURTEAREN HASIERAN, ALAITASUN GUTXI

Irudimenaren ariketa bat proposatzen dizuegu:

Imajina ezazue Eibarreko esleipenean ezagutzen ez duzuen plaza bat, eta ezagutzen ez duzuen herri eta ikastetxe batean hartzen duzuela. Ondoren, zuen bizitza, hala edo nola, antolatzeke bi egun dituzue: umeak norekin utzi, plazaren ordutegia ikusita umeentzako eskolaz kanpoko ekintzetan apuntatu, googlen bilatu ikastetxearen herrira nola heldu, GPSa konfiguratu, umeari titia ematen jarraitzeko nola egin... Bakoitzak bere egoera pertsonalaren arabera konponketak edo moldaketak eginez.

Lanean hasteko eguna ailegatzen da, eta... ikastetxera heldu bezain pronto haxe esaten dizute: plaza horren ordutegia ezberdina dela, edo lehenago joan behar duzuela garraio bereziaren txoferrak esaten duelako, edo laktantziaren ordua hartu beharko duzuela egunaren arabera

edo, plazaren berezitasunak direla eta, egunero 10 ordutan lan egin behar duzuela, edo zuen bazkaltzeko denbora finkatzeko kristoren oztupoak daudela, edo zuen plaza ez dela existitzen, edo...

Arazo horiek ez ditugu guk asmatu, errealitatean gertatzen dira. Horiek eta gehiago, eta batzuk, gainera, urtero-urtero berdinak dira. Kasu batzuetan ere, arazoak argitzerakoan, erantzun ederrak entzun behar dira arduradunen aldetik.

Eta, zer egin daiteke egoera horietan? Salatu, salatu eta salatu. Ezin dugu agintzen diguten guttia onartu eta STEE-EILASek horrela adieraziko die Administrazioaren arduradunei.

Eta, ikasturtearen hasieran arazoak izan dituzuenontzat: ANIMO!!

Estamos en proceso de negociación del 2º Convenio colectivo del personal laboral docente y educativo, con un preacuerdo firmado por todos los sindicatos que componemos la Mesa Negociadora de este colectivo y en el que, por primera vez en mucho tiempo, parece que se dan pasos hacia adelante. Pero en la realidad cotidiana de los centros, todavía nos seguimos encontrando con los mismos problemas de siempre o incluso mayores, ya que, aunque no se aprecian apenas recortes en el número de plazas ofertadas de un año a otro, es verdad que no se ponen todos los recursos necesarios para realizar nuestras funciones de manera óptima, y se llegan a dar situaciones difíciles e injustas.

2011-2012an STEE-EILASen Lan legepekoen ardura dugunok honakoak gara:

Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Nerea	Marije	Soko
	Nagore	Elena


Los sindicatos CCOO y UGT aseguran que Euskadi es una **"isla positiva"** dentro del panorama educativo estatal

I.A./EFE - Miércoles, 21 de Septiembre de 2011 - Actualizado a las 05:44h



"Itsasoan galdutako guztiek amesten dute irla batekin eta denCCOOK ezaUGTutzen ditugun batzuk, naufragatu ez ezik, errealitatea ametsekin nahasten dute...(porlokelestoka)"

BI ESTILO, BI
NORABIDE



MURRIZKETEN SALAKETA EUSKO LEGEBILTZARREAN

Urriaren 3an Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean agerraldia egin zuen STEE-EILASek, LAB eta ELArekin batera. STEE-EILASen ordezkariak murrizketen salaketa zehatza egin zuen. Ikusi nahi baduzu STEE-EILASen agerraldiaren BIDEOA www.stee-eilas.org webean duzu:



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

./.../ Baina Euskal eskola publikoak aurrera egin du aurrera begiratzen duelako. Hemen baino hobeto dabilzan eredu en referentzia aintzat hartzen duelako, bai inbertsio, bai antolaketa eta bai pedagogia maila. Aurrera doa ez direlako begiratu, Celaá andereak eta sailburuak egiten duen bezala, diru gutxiago inbertitzen duten eskualdeei, murrizketa handiagoak ezartzen dituztenei edota ordezkapenak era kaskarragoan betetzen dituzten administrazioei. Ez du balio Europako iparraldera begiratzea PISAk emaitzak kaleratzen dituen eta, aldiz, gu baino okerrago dauden lurraldeetara begiratzea inbertsioaz, aurrekontuaz, lan baldintzaz edo eskola komunitatearen nahiak aintzat hartzeaz hitz egiten denean. ./.../

(STEE-EILASen agerraldiaren zati bat)



HAN-HEMENKA IRAKURRITAKOAK:


Josep M. Cervelló, Kataluniako USTEC-STE sindikatukidea, katalanaren eztabaidaz:

Katalanak kohesio soziala eta elkarbizitza bultzatu behar ditu. Ikasle guztiak aukera berberak izan behar dituzte, hizkuntzagatik inor bereizi gabe. 1970eko hamarkadaren bukaeran eta 1980koaren hasieran eztabaida handia izan zen ea ikasleen ama hizkuntza bermatu behar genuen ala ohiko hizkuntzatzat katalana hartu behar zen. Gogoan izan 1960-70eko hamarkadetan milioi bat andaluziar eta extremaduratar etorri zirela gurera. Kontua ez zen hizkuntza salbatzea, hori ere bai, baina batik bat hizkuntza etorri berriekin elkarbanatzea zen. Ikastetxeetan ez ziren bi lerro sortu, Herrialde Valentziarren bezala. Eskola segregatua egin izan bazen batasun soziala apurtzeko arriskua zegoen, lurralde berean bi herri egongo ziratekeen.

Argia aldizkaria, 2011-10-02



Zaldieroa, Berria egunkaria, 2011-09-24



Manel Fontdevilla, PUBLICO, 2011-09-11

David Atchoarena, Unesco Hezkuntza Estrategia zuzendaria

Belaunaldi galduak sortzeko arriskuaz ari zarete. Zer esan nahi duzue? Krisiak eragin handia izango du herrialde batzuetan, eta arrisku handia dago gaur egun eskolatuak dauden haurrak bidean galtzeko, eta heziketa kalitatea jaisteko. Krisia langabezia izugarria eragiten ari da, eta, lanik ez badago, jendeak ez du haurrak eskolara bidaltzeko aukerarik; zer esanik ez helduak alfabetatzeko. Umeetan arrisku handia dago. Herrialde askotan sumatzen hasiak dira haur asko eskola utzi eta eskean hasi direla.

Gainbehera horretan belaunaldi galduenak neskak izaten dira. Iraganean ikusi dugu herri-ahulenak neskak direla. Maiz ikusten dugu hainbat kulturatan emakumeen heziketa gutxies-ten dela, eta egoera gogorretan okertu. Etxera sartzen dituzte. Baina hor ikusten da gizarte askotan emakumeen hezkuntzak zenbat balio duen. Berdin gertatzen da desagertzeaz dauden hizkun-

tzetan bizi direnekin, bazterrean bizi diren herritarrekin, azken batean.

Nahi eta ezina ere bada beste arazo bat. Irakasle beharra, barne egitura... Hezkuntzarako eskaria izugarria da hainbat lekutan, baina ez dago eskaintzarako bitartekorik. Eskari handia dago, baina batzuetan hezkuntza hedapena eta merkatua ez datoz bat. Gutxiengoei euren hizkuntzetan erakusteko modurik ez dago, adibidez. Irakasleak hezi behar dira aurrena, eta zenbakietan aurrerapausoak azaldu behar eraginez gutxiengo kulturak kaltetzen dira.

A. Mujika. Berria egunkaria, 2011-09-24